


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko irailaren 2a / IV. urtea / 142. zenbakia

Gordinean Gor

Distantzia luzeko korrikalaritzat dute euren burua, eta ez dira, ez, erraz amore ematen duten horietakoak. Jubilatu arte, eta beranduago ere, diskoak karrikatzen segitzeko asmoa dute. Nafar Rock, Soñua, Oihuka... hamar urte daromatxate Goñi anaiek disketxez disketxe, zigiluz zigilu, musika independentearen bandera eskuan, multinazionalen aurka borroka latzean. Gor disketxea sortu zuten duela lau urte. Euren neke eta izerdiei esker, euskal erritmo independenteak tinko dirau Nafarroan. Hona hemen, ale honetan, euren proiektua, Gor, gordinean.



Paroten gutuna

Unai Parotez idatzi nahi nuen...
Ez, barkatu, gaizki erran dut, Unai Paroten gutunaz idatzi nahi nuen nik.
Zin dagit: zutabe mamitsua prest neukan pertsona horrek (redio, hitzak neurtu behararren beharra!) hainbertze hautsa harrotu duen bere izkribuan jorrazten zuen gaiaz. Sekulako hausnarketa intelektuala zen, benetan, gutun-egilearen gogaide ez izateak baina ni ere bitan aitatu izanak ematen duten patxadaz baliaturik egina. Zifrak eta datuak kontsultatuak nituen Euskal

Herriko ugalkortasunaz. Urrutiko adibideak ere nekartzan (Ulster, Flandria, Txinako gutxiengo etnikoak). Euskararen etorkizunaz ere mintzo nintzen eta —bistan da— trasmisio naturalaren garrantziaz. Norberaren aukeraren (edo ahalarren) aldeko apostua egiten nuen hala ere, baina nere fedea ematen dut Parotek bere gutunean erabilitako 'traizio' hitzaz berari azahantzia nintzela. Ironia bakarra permititzen nion nere buruari eta hura ere ttipia (ttipi-ttipia, sinetsiez zaidazue); hitz-joko apal bat 'iraultza' eta 'irauntza' nahasiz.

Amen eta omen

AINGERU EPALTZA



Hori dena egin nahi nuen, eta ez dut egin, honez gero beldurrak hartua bainaiz, afera honi buruz hitz bat bakarra paratu orduko ez ote ditudan alde guztietatik tiro-hotsak adituko. Irakur, bertzenaz egunkari honetako iritzi orrialdeak.

Aspaldi idatzi nuen gure arteko edozein eztabaidari borroka armatuak ekartzen dion distortsioaz, baina ez nuen orain artean hain adibide garbirik aurkitu. Gogorkeria edo haren protagonistak tartean izanez gero, fini iritzi-trukaketak, akabo mezua eta mezularia bereiztea. Hura zertzat hartu —gure askatasunaren alde borrokatzeagatik kartzelan dagoen heroia edo bere

merezia hartzen ari den hiltzaile zikina, eta muturreko bi ikuspegi horien artean diren zuri-beltzaren gradazio guztiak— halakoa ere dirudi bere predikuaeren aitzinean erakutsi beharreko jarrerak. Haren mintzoa zuhurra ala ergela zen, haren mintza doinua egokia ala lekuz kanpoko zen, horiek denak axola gutti. Parot saindutzen edo deabrutzen segitu ahal izateak du munta ferria triste honetan.

Zorioneko gutunak, ordea, ez zekarren bere egileak hil omen dituen hamahiru lagunene gaineko argitasunik, ezta bizi duen espetxeratze egoera latzaren aipamenik bat ere. Seme-alabak ziztuen solas. Bertzerik ez.

ERAKUSKETAK

Personajes navarros, mitos y leyendas izeneko Angel Elviraren margo erakusketa abuztaren 25ean zabaldu zen Burlatako udaletxeako kultur aretoan eta igandera arte egongo da ikusgai. Hilarion Eslava eta Pablo Sarasate dira erakusketa honetako protagonisten artean ezagunenetarikoa. Mito eta istorioen artean, berriz, 'Osasunaren iturria' eta 'Aintzirako lorea' izenekoak berreskuratu ditu, besteak beste, Angel Elvira margolariak erakusketa honetan.

Sagrario San Martin margolariaren erakusketa zabaldu zen abuztuaren 16an Nafarroako Aurrezki Kutxako kultur aretoan eta hilaren amaiera bitartean egongo da ikusgai. Erakusketa hau ikusi nahi duenak, egunero arratsaldetan eta asteburuetan, berriz, goizetan izango du aukera.

Beatriz Martinez Errioxako margolariaren erakusketa zabalik dago ostegunaz geroztik Tafallako erakusketa aretoan. Hilaren 14a bitartean egongo dira ikusgai bere koadroak Kultur Patronatuak antolatuta.

Artisautza erakusketa ikusgai dago Zangozako Bandres aretoan. Erakusketa hilaren 18ra arte egongo da zabalik eta ikusi nahi duenak astelehenean larunbatera izango du aukera. Ordutegiari dagokionez, egunero arratsaldeko zazpiak eta bederatzia bitartean zabalduko ditu atek erakusketak.

ZINEMA

Udako zinema zikloaren barruan, 'Hara nor dabilen hizketan' filma eskainiko dute Irurtzunen datorren asteazkenean. Emanaldia herriko Foruen plazan izango da gaueko hamarretan, Udako Kultur Programazioaren barne.

MUSIKA

Alamar jazz taldeak emanaldia eskainiko du Barañaingo Udaltxeako plazan, bihar arratsaldeko zazpietan, bertako Kultura Batzordeak antolatuta. Igandean, berriz, Pabeko musika bandak joko du Konstituzio plazan.

BESTELAKOAK

Joko eta antzerki tailerrak antolatu ditu Nafarroako Antzerki Eskolak. Ikastaroak lau eta hamabi urte bitarteko haurrei zuzenduko zaizkie eta Antzerki Eskolaren aretoan izango dira.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

'Made in Coração'


Made in Coração. Bihotzean egina. Halaxe agurtu zituen Toquinho kantari brasildarrak astearteko kontzertuaren hasieran entzuleak, eta laburpen ona izan zitekeen bere emanaldi ederra azaltzeko. Bihotzean egina, bihotz-bihotzez abestuta eta maitasunez —maixutasu-

ten grazia. Horrela gelditu ziren asko, herrira heltzen ziren orkestrek abestutako lau kanta jarraien koplekin, hain zuzen.

Astearteko kontzertuan ordukoen bertuteak ezezik, gehiago ere entzun ahal izan zen: izan ziren taula gainean bost musikari aparta, izan zen

zena. MUSIKA maiuskulaz, edonora begirata ere, aise asma baitzitekeen zein eta zer ari zen jotzen momentu baikoitzean.

Falta izan zen, akaso, jendearekiko konplizitate handiagoa, Hegoaren berotasun aipagarri hori. Baina jendeak eskertu zuen Toquinhoren



nez—burututa.

Duela hamar urte *potpourri* modura heldu ziren abesti brasildarren disko famatuak dira lurralde hauetan askok duten musika honen erreferentzia bakarra. Herriko festetan oparoak, ohizko zerrendaburuekin alderatuz gero bazuten erritmo berezia, hitzak atseginak ziren eta bazu-

zuzenean ikusteko aukera eta, giro brasildarra ez bazegoen ere, izan zen gau ederra Altsasun. Ez zen azaldu batzuek espero zuten mulata ederra eta ez zen gerri-mugimendu itsaskorrik sumatu musikarien artean.

Sumatu zen teknika harri-garria eta jatortasun aipagarria. Musika zen han entzuten

emanaldia, konturatu baitzen, nik uste, azpimarratzekoa den musika honen meritu eta garrantziaz —anglosaxonia rereduetatik kanpo industria sendo eta eraginkorri eustsi eta Toquinho bezalako musikari bikainak sortzearena—.

Made in Brasil. Brasilen egina.

ASTEKO PERTSONAIAK



Gabriel Urralburu
Parlamentari ohia

Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernu lehendakari ohiak uko egin dio parlamentari izateari. Bere ukoa astelehenean jaso zuen Nafarroako Parlamentuak. Urralburu, PSNko idazkari nagusi ohi, susmoen itzalpean egon da Luis Roldan Goardia Zibileko zuzendari ohiari buruzko ikerketa hasi zenetik. Orduan jakin ahal izan zen, hain zuzen, Gabriel Urralbururen emazteak inbertsio pribatuak egin zituela Roldanen testaferroaren bitartez. Aferra horregatik utzi dio parlamentari izateari Urralburuk. Bestalde, Herri Batasuna, Eusko Alkartasuna eta Izquierda Unidak astelehenean eskatuko dute Nafarroako Parlamentuan Gabriel Urralbururen eta Antonio Aragonen ondarea ikertzeko komisioa osatzea.



Miguel Indurain
Txirrindularia

Frantziako Federazioaren arabera, Miguel Indurain txirrindulari nafarrak positiboa eman zuen Tour de l'Oise-ko hirugarren etapan, atarrabiarrak berak irabazi zuena, maiatzaren 15ean. UCI eta COI elkarrean araudiekin bat egin gabe, Federazio frantziarrak bere araudiari jarraitzen dio Indurainek hartutako 'Ventolin' farmakoa dopintzat jotzeko. Txirrindularitzako Nazioarteko Batasunak, berriz, farmako hori debekatua ez dagoela dio eta Farntziko Federazioari komunikatua bidaliko dio hutsa zuzen dezan. Indurainek Txirrindularitzako Nazioarteko Batasuneko araudiei jarraitu diela adierazi du. Gainera, Frantziako Federazioak tratamenduan zegoela bazekiela jakinarazi du Atarrabiakoak, horren txostena aurkeztu baitzuten Tour de l'Oisen.

AHAZTU GABE!

MUSIKA

Negu Gorriak, Tapia eta Leturia eta Dut taldeek kontzertua eskainiko dute bihar Beran Nafarroa Oinez 94ren alde. Aurtengo Nafarroa Oinez irailaren 18an ospatuko da 'Bideosan' lelopean eta Beran izango da bigarren aldiz. Urte guztian zehar burubelarri aritu dira beratarrak lanean, elastikoak saldu, ekitaldiak antolatu, eta abar. Jaieguna hurbil dago eta azken aste hauetan hilaren 18rako dena prest izaten saiatuko dira antolatzaileak. Hain zuzen ere, Negu Gorriak taldeak egin du aurtengo Nafarroa Oinez-en abestia eta bertan izokin euskaldun baten istorioa kontatzen dute Irungoek. Kontzertua gaueko 9etan hasiko da eta txartelak leku hauetan egongo dira salgai mila pezetaren truke: Iruñean Kilkir diskodendan, Donostian Xaribarin, Baionan Zabal liburudendan, Iruñen Bertso-Hopen, Beran Errekalde ostatuan eta Lesakan Kattu ostatuan. Bertan erosiz gero 1.200 pezeta balioko du sarrerak.

jenero xumekoak

Berdinketak

Emagalduek eta ostalariak ohitura bera daukate. Biek baso berean ematen diete zerbitzua onari zein gaixotoari.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Altsasu

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Ur mozketek jarraitzen dute

IRUNEA

Altsasuko herritarrek arazo larriak dituzte aurten ur horniketa dela eta. Izan ere, egunero hamabi orduko mozketak jasan behar izaten dituzte bertakoek. Gainera, bertako Udalak jakinarazi duenez, mozketa hauek luzatu daitezke uda bukaera eta udazken hasierakoak aurreko hilabeteak bezain lehorrak badira. Izan ere, iraila eta urria izaten dira askotan hilabeterik larrienak Altsasan. Egun, Alzania ibaitik hartzen dute ura altsasuarrek. Urdalurren ere presa bat egin dute baina euririk egin ez duenez bete gabe dago.

Egoera hau joan den igandean gertatutako matxurak, gainera, okertu egin zuen. Alzania mendiko ur gordailu nagusitik, garbigailutik pasatu ondoren, ailegatzen da ura Altsasura. Joan den igandean, gaueko mozketa bukatuta, ur horniketa berriro martxan jartzera joan zen langile bat baina ezin izan zuen. Ondorioz, igandea eta astelehena bitartean, ura eduki arren, ezin izan zuten kontsumorako erabili, ez baitzen edangarria. Hala iragarri zuen Altsasuko Udaltzaingoa herriko kaleetan zehar.

Arazo hau konpontzeko era bakarra gordailua ustea zen baina konponbide hau ez zuten inolaz ere erabili nahi izan bertako arduradunek. Horren ordez, Urdalurretik jaisten den tutu zaharra erabiltzea erabaki zuten baina honela, ura zuzenean, garbigailutik pasatu gabe, heltzen zen he-



Egun, Alzania ibaitik hartzen dute ura altsasuarrek.

rrira. Tutu zaharra martxan jarri ahal izateko, suhiltzaileek sartu behar izan zuten ur gordailuan. Ura garbitu gabe heltzen zenez, ezin izan zuten kontsumorako erabili altsasuarrek.

ARAZOAK LEHORTEAREN ONDORIOZ

Egoera hau astearte arratsalderaren artean luzatu zen. Asteartean ur horniketa berriro ere moztu egin zuten eta bi ordutan matxura konpondu egin

zuten. Emilio Boulandier Altsasuko zinegotziak jakinarazi duenez, Udalurreko presa betetzeko euririk egiten ez duen bitartean behintzat, ur mozketek jarraituko dute, batez ere, iraila eta urria lehorrak baldin badira. Izan ere, urte askotan zehar irailan eta urrian izan ditu Altsasuk ur horniketan arazorik larriak.

Altsasuko Udalaren arabera, oraingoz horniketa hobetzeko konponbide bakarra ura ka-

mioien bidez Gipuzkoa aldetik ekartzea da. Bestalde, Jose Ramon Mintegi Altsasuko behin-behineko alkateak adierazi duenez, herriko ur horniketa hobetu ahal izateko neurriak hartuko ditu Udalak, urtero jasan behar izaten baitu mozketak. Aurten, egoera larri bilakatu da, gainera, igandeko matxuraren ondorioz. Altsasuarrek, ziurrenik, pozik hartuko dute euria ailegatuko denean.

Atarrabia eta Mendillorri

Euskararen Eguna ospatu asmoz ekitaldi ugari antolatu dituzte herritarrek astebururako

IRUNEA

Euskararen Eguna ospatuko dute Atarrabian bihar eta igandean. Etxe Beltza elkarteak eta Atarrabiako Udaletxeko Euskara Komisioak antolatuta, euskal historia eta hizkuntza gogora ekartzea du helburu. Aurreko edizioekin alderatuz, aurtengo egitarauan ikuskizun berriak agertu dira, kirola eta kultura, antzinakoa eta oraingoa, musika eta dantza nahasi asmoz.

Larunbateko egitaraua goizeko 11etan hasiko da, txirrindula lasterketarekin. Alas peñak antolatu du eta neska eta mutilak har dezakete parte. Etxe Beltzatik aterako dira guztiak. Arratsaldean, berriz, 5.30ak aldera, Kollins Clown antzerki taldeak 'Ongi etorri Mendebaldera' obra

aurkeztuko du. Eta antzerkiari txoko bat eskaini ondoren, kirola izango da berriro protagonista Atarrabian, pilota partidua jokatu baidituzte bertako gazteek.

Igandeko egitarauak, goizeko 10.30etan hasita, benetako jai giroa eramango du Atarrabiako kaleetara. Ordu horretan, hain zuzen ere, Zintzarri ta Oria txarangek argisoinua joko dute herrian zehar, mundu guztia esnaraziz. Eguerdian herri kirolak izango dira Udal enparantzan eta 2.30etan, herri bazkaria pilotalekuan, Zintzarri eta Oria txarangek eta nafar eskolako bertolariek alaituta. Egunari amaiera emanez, dantzaldia izango da arratsaldean Udal enparantzan.

Atarrabiaz gain, Mendillorri-

ere ospatuko dute Euskararen Eguna bihar. Gaztelu Mendi Kultur Elkarteak antolatu du urtero bezala, euskara eta bere kulturaren inguruan herritar guztiak bildu asmoz. Ekitaldiak gaur bertan hasiko dira Mendillorri eta haurrak izango dira protagonista. Larunbatean, berriz, artisautea erakusketa egongo da goizez. Ekitaldirik garrantzitsuenak, hala ere, arratsaldean izango dira. 19.30etan Nahi Ta Nahiez taldeak joko du eta ondoren, herri afaria egingo dute Mendillorrikoek. Afaldu ondoren musika izango da berriro protagonista eta gaueko 12.30etatik aurrera gaupasa egongo da Izorradi taldearen eskutik.

Asteburu honetan, beraz, euskara izango da protagonista Atarrabia eta Mendillorri-

Doneztebe

Arkupeak txango ugari antolatu ditu kideentzat

IRUNEA

Jubilatu, Pentsionista eta Alargunen Elkargo Probintziala Arkupeak, iraila eta urria bitartean txango ugari egingo ditu Kantabria, Benidorm eta Kataluniara. Elkarte hau Donezteben badago ere, inguruko herritako kide asko ditu, Bortziri, Maleurreka edo Baztan aldekoak, besteak beste. Urte osoan zehar ekitaldi ugari antolatzen ditu Arkupeak eta guztiak ongi pasatzeko aukera ederra dute beti.

Iraila eta urria bitartean, beraz, txangoz-txango ibiliko dira Arkupeko kideak. Lehenik, Katalunia aldera joango dira irailaren 17 eta 26 bitartean, Urrian, 5etik 8ra Kantabriara joango dira. Azkenik, 17tik 31ra Benidormen egingo dira Arkupekoak.



Marrazkiak

Flan txinatarrari buruz idatzi nuen eta emakume bat zakurra paseatzen ageri zen. Bururatu zitzaidan festetan jaten ditugun bokadiloetaz aritzea eta ilargipean lotan dagoen kotxe bat irudikatu zuen. Artikulu sakon bezain umoretsua idatzi nuen Udako Euskal Unibertsitatara hurbiltzen direnen praka motzei buruz eta, berriz ere! beste neska bat beste txakur bat paseatzen ari zela marraztu zuen.

Arrazoia duzu irakurle maite zaren horrek. Arrazoi guztia. Zurekin bat nator, eta zurekin batera nik ere ozenki esango dut. Artikulu hauen goikaldean agertzen diren marrazkiek ez dute inoiz artikularen mamiarekin bat egiten. Eta horri buruzko azalpenak emateko eredu fisikoez baliatuko naiz. Sagaseta eta Etxunbida erreka famatuek egiten duten moduan zutabe hau osatzen dituzten bi atalak bide desberdinetatik abiatzen dira Arga ibaira eta, zin dagizuet, egunkaria jaso arte ezin dut ezta imajinatu ere egin zer ziriborro, zer beltzadurak, zer itxurako tintak agertuko diren. Jakina, Sagaseta eta Etxunbida-ko urak Argara isurtzen direlarik ur bera eta bakarra osatzen dute eta zutabetxo honetan, aldiz, protoia eta neutroaren parean ibiltzen dira —ene artxiobotan batuezinak direla aipatzen da—, ardoak eta Coca-Colak kalimotxo bat bakarra eta bera osatzen duten ez bezala.

Baina erabaki sendoa hartu dut. Nere irakurleek ez dute eta gutxiago merezi. Kalimotxo, Sagaseta eta tintaz nahastan saiatu baldin bada ere, garbi eta ozenki hitz egin diot marrazkilariari: gaur elefante arrosa bat nahi nuela, tronparen muturrean zerbeza botila bati eusten diola. Mozkortuta dagoenez, hazitzailea zapaltzen ari da, eta antzeman daitkeenez, elefante hiltzailea da. Hori nahi nuen, eta halaxe egin dit.

Gor disketxe independente iruindarrean aski ongi dakite zer izan diren, zer diren eta zer izan nahi duten. Hori guztiaren berri eman digu Marino Goñik, disketxea aurrera ateratzen duten Goñi anaien artean musikan lehendabizi murgildu zenak. Barricadaren lehen diskoa karrikaratzetik Huajaloteen azkena plazaratzerarte segitu duen bidea laburbildu du Nafarkariarentzat. Portzieto, jakin badakite, halaber, zer ez duten izan nahi...

«Ez dugu CBS izan nahi»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑA

1982. urtean Naranjotok eta bere futbol mundialek guztion burmuinak jaten zituztelarik, Marino Goñik zorabio horretatik aldendu eta bere burua musikaren munduan sartu zuen, «How bussines-ean», berak esaten duen legez. Garai hartan Madrilgo mobida zen nagusi. Alaskak eta bere Pegamoidesek gogor jotzen zuten Los Secretos eta beste hainbat talderekin batera, eta irati uhinek plastikozko doinu horiek tonaka hurbiltzen zituzten Euskal Herriraino. Zama astun bezain moderno —edo post-moderno— horren pean, garai hartako euskal disketeek folklorea besterik ez zuten grabatzen, Marinok azaltzen duenez, «inork ez zuelako uste gaztelaniar rocka egin eta mezu bat igortzerik zegoenik».

Iruñeko Soñua disketxea ez zen inolako salbuespena. Haatik, zorioneko urte horretan Marinok, Jose Maria Blasco eta Miguel Monterorekin elkarlanean, azpi-zigilu iraultzaileak sortu zuen. «Disketxearen barruan rock Ep-ak atera ahal izateko Nafar Rock izeneko zigilu txikia sortu genuen. Irratia entzun ez gero, bazirudien mobida madrildarra besterik ez zela existitzen, baina bazegoen horretaz landa beste mugimendu sinestezina, izugarria». Zigilu berrian barna berehala ikusi zuten argia La Polla Recordsen «¿Y ahora qué?». Ep historikoak, eta Motos-enak. Gasteizko taldearen disko historikoak lortutako arrakastaz indarturik, Marino, Txabi Oñeka eta Jokin Zamardidek —geroago Patxi Goñi Marinoren anaieren laguntzaz— Soñua goitik behera eraberritu zuten, folkloretik rockera salto egiteko.

FOLKLORETIK ROCK & ROLLERA

Marinoren aburuz, aipatu salto hark izugarriko garrantzia eduki zuen. «Garai hartan musika mugimendua eta mugimendu politikoa nahiko gertu zeuden, eta guk hurbiltze horretan lagundu genuen. Egun oso zaila litzateke Euskal Herriko mobida rocka aintzat hartu gabe ulertzea, eta aldrebes, ezin da euskal rocka hemengo mobida kontuan hartu gabe ulertu». Soñua berriak Barricadaren eskutik eman zuen lehen urratsa rockaren bidean barna. Txantreko etxabe batean diskoa grabatu zuten, eta segituan sekulako arrakasta lortu. Gero Hertzainak, Jo ta Kie, Kortatu... etorri ziren.



Barricadatik Huajaloteraino, bide luzea ibili dute Goñi anaiek. LACALLE

Marinoren hitzetan, «garai hartan Soñua arlo artistikoari dagokionez oso ongi moldatzen zen, baina, tamalez, arlo ekonomikoan ez». Eta hain zuzen ere sosek, aipatu arazo ekonomikoak desagertarazi zuten, zenbait tirabirarekin, Soñua zigilu historikoa 1986. urtean. Tirabira

horien ondorioz, Soñuan lanean jardun zutenek bi norabide hartu zituzten. Oñekak eta Zamardidek Nola izeneko zigilua sortu zuten, eta Goñi anaiek Euskal Kulturgintzaren, Elkarren barruan, Oihuka zigilua sortu zuten. Tijuana, Potato, Tahures Zurdo eta beste talde askorekin egin zuten lan, baina ez nahi bezala. «Alor artistikoan erabateko askatasuna genuen, eta ekonomi-

Egoera hori dela medio, Nafarroan 'estalki' efektua gertatzen ari omen da. «Betikoez jotzen dute beti, eta berrientzat oso zaila da gora egitea. Badira Nafarroan frankotiratzaila gutxi batzuk, guztiok ezagutzen ditugunak, baina oro har ez dago rock mugimendu indartsurik». Dena dela, hori aldatu egingo dela iritzia dio Goñik, «halabeharrez».

Bien bitartean, esan bezala artistikoa ez da krisi bakarra. «So sei dagokionez, guztia erdira

Egun, aurrera egin ahal izateko, dagoena grabatu behar duzu, dirua lortu, eta gero disko defizitarioak atera ahal izateko».

murriztu da, disko salmentak, kontzertu kopurua, kontzertu bakoitzeko kobratzen dena... Lehen disko bat ateratzen zenuenean hiru mila ale saltzen zenuen, dirua berreskuratzen zenuen, eta zertxobait ere irabaz zenezake. Orain, berriz, 1.500 ale saltzen dituzu, eta dirua galtzen duzu». Gauzak horrela, zaila izaten da soil-soilik nahi duzuna grabatzea. «Aurrera egin ahal izateko, dagoena grabatu behar duzu, dirua lortu, gero disko defizitarioak atera ahal izateko».

Dena dela, zailtasun horien guztien erdian Gorrekoak, apurka-apurka, euren bidea nondik nora joan den finkatzen ari dira. Badakite zer izan nahi duten eta zer ez. «Ez dugu CBS izan nahi. Ez dugu handinahirik. Diskete independenteak eskailera-ko lehen mailan gaude, eta aski ongi dakigu hori. Guk zubia izan nahi dugu. Talde berriak atera, eta horiei gora egiten lagundu nahi diegu, ezagunak egiten ditala. Orain argi dakusate zein den euren egin beharra, baina kostata ikasi dute hori. «Hasieran ez genuen hori pentsatzen. Barricada multinazional batekin joan zenean min handia hartu nuen, taldea nirea zela uste nuelako. Denbora pasa ahala, ordea, oker nabilela ikusi dut. Barricadak ez zeukan zentzurik diskete independente bati loturik, lehen bi diskoetan bai, baina gero ez. Guztiok ikusi dugu noraino hel-

SASOI ILUNETAN JAIOA

Gorrek, jaio zenezatik, sasoi ilunak ezagutu ditu «How bussines-ean»; izan ere, harrezkerio Marinoren arabera mundu horretan krisia izan da nagusi, hala alor ekonomikoan nola artistikoan. «Alor artistikoan krisian murgildurik, trantsizio garaian gaude. Egun, 70eko hamarkadan bezala, oro har badirudi oso ongi jo behar duzula eszenatoki batera igo ahal izateko, eta horrek rock & rolla itotzen du. Esaten duzuna interesgarria bada eta abestia ere interesgarria bada, berdin dio hiru akorde besterik ezagutzen ez badituzu. Benetako rock & rolla 17-18 urteko mutila da, dakitena jotzen dute, eta hori da rock & rolla».



Marino Goñi, hamalau urtez diskoak eskatu diren, eta ni, orain, harro nago igoera horretan lagundu dudalako.


du diren, eta ni, orain, harro nago igoera horretan lagundu dudalako.

Dena dela, ez daude edonori laguntza emateko prest. «Izpiritu gerrilaria beti hor dago, eta nahiago dugu 'hemen gaude zu eta biok eta gure amodioa' baino interesgarriagoak diren gauzak esaten dituzten taldeak. Personalitate badute, eta kasik marginalak baldin badira, hobe, ez baitugu berehala multinazional batekin joan den talderik nahi». Bestalde, ez dute euskara hutsean lan egitea jotzeko asmorik. «Tamalez, erabaki guzietatik urrun gaude. Nafarroako merkatua ez da existitzen, eta euskal merkatuentzat edota Espainiako merkatuentzat egin behar dugu lan. Hemen, mugan, ezin dugu euskara hutsean lan egin eta, bestalde, ez dugu erdara hutsean lan egin nahi. Beraz, bi hizkuntzetan lan egiten segituko dugu».

Ez dute, halaber, musika ekoizpenen eskaileran mailarik igotzeko inolako asmorik. «Britainia Handiko eta Estatu Batuetako diskete independenteek bestelako ekoizpen mota batzuk sortu dituzte, elkarlanean aritzea, eta zigilu handiak sortzeko. Hemen, Estatuan, ez dago horretarako mailarik. Hobe da, Madrilgo disketeek izutu egiten naute eta, zakurkerietan trebeak naute eta, zakurkerietan trebeak naute eta, zakurkerietan trebeak naute». Euskal Herriko disketeen arteko erlazioa ez haren da horren latza. «Zakurkeriak izaten dira, bai, baina txikiak. Guztiok elkar ezagutzen dugu, guztiok badakigu IZ, Esan Ozenki, Discos Suicidas, Elkar edo Gor zer egiten ari den, eta hori dela eta giroa, oro har, nahiko ona dela esan daiteke. Gainera urtero Durangoko azokan elkar-tzen gara, eta orduan urteko afera guztiak argitzen dira». Kontuak kontu, Marinok eta bere anaiek Durangora joaten segitzeko asmoa dute. «Jubilatu arte diskoak egiten segituko dugu guk, eta gero argitu ere bai, finean, fondoko korrikalariak gara eta».



Balerdi Goñi anaien taldea.



Pottokoaren bidea ere, aurrera darrai krisiaren erdian.

Gorren altxorrak

J.K.L. / IRUÑA

Kazetari batek diskete bateko arduradun bati elkarrizketa egiten dionean halabeharrez ateratzen dituen diskoak galdetu behar dio, aktore batekin hitz egiten duenean ondorengo hila-betetan eginen dituen obrei buruz galdetu behar dion bezalaxe. Ohiturari jarraiki, kazetari honek derrigorrezko galdera hori egin zuten, Parabellum eta Urtz Gor diskete independenteen arduradunaren erantzuna: «Eguberrietan Parabellum eta Flitterren disko berriak karrikaratu ditugu, eta udaberrian Exkixurera. Izan badira hurrengo Eguberrietarako beste asmo batzuk, baina oraindik zehazteke daude».

Halabeharrez egin beharreko galdera egin eta gero, Gor-en altxorrei buruz mintzatu ginen luze eta zabal. «Huajoloteak, Urtz eta Parabellum dira dirua ematen dutenak. Horiematik landa, lan asko eta diru gutxi». Gauzak horrela, nola ez ba, Huajoloteekin hasi ginen, dudarik gabe horiek baitira, egun, Iruñeko disketearen altxorrik preziatuena. «Jendeak behar duena zera da, ongi pasatu, hori argi dago. Aukera baldin bada Huajoloteekin edo Traktore Horiarekin ongi pasatzea, argi dago nik Huajoloteak nahiago ditudala».

Jakina, Marino ez dator bat Huajoloteen aurka jauritzen diren kritikekin. «Maila handiko musikari askok oso gaizki hitz egiten dute Huajoloteei buruz, oso txarrak direla, eta euren arrakasta ez dutela ulertzen esaten dute. Nire ustez, hor badira artista handiak, eta beren hitzei begiratzea besterik ez dago. Gavilan, gainera, izugarria da. abesten

agian ez da Miguel Angel Mejia bezain trebea, baina igorle trebea da. Gainera euren mezu argi eta garbia da, ez dute engainatzen. Horiak bezalako dozena bat talde beharko genituzke konparatu ahal izateko».


Urtz eta Parabellumi buruz, ez zuten horren luze hitz egin. «Urtzkoek aski ongi saltzen dute, oso serioak dira, eta oso ongi funtzionatzen dute». Parabellumekoek, bestalde, euren salmenta kopuruei etsi omen diete. «Publiko jakin bat lortu dute, eta salmentei dagokionez, aski ongi funtzionatzen dute. Salmenta kopuruari etsi egin diote, eta hori asko da».

Dirua ematen dutenen artean ez badago ere, seguruenik Balardi-Balerdi da Gor disketearen semerik kutunena; izan ere, talde euskaldun honetan aritzen dira Goñi anaiek. Horren egoeraren inguruan, ibili badabilela azaldu du Marinok, «eta hori ez da lortu duen makala, gaititu behar ditugun oztupoak kontuan izanda». Batetik, taldeko musikari bakoitzak taldetik landa bere lanbidea du, eta besteik 70 kilometroko aldeak banatzen ditue batzuk besteengandik. Hala eta guztiz ere, kontzertuak ematen jarraitzen dute. «Bilbon eta Altsasun izan gara duela gutxi, orain Iparraldera joan gara, eta egiten duguna gustatzen zaigu».

Pottokoaren egoera antzekoa

da. Kontzertuak eskaintzen ditu —Sanferminetan, esaterako, Iruñeko barraka politikoen aretoan aritu zen kantari—, baina lehen baino gutxiago. «Berari eta guztioi oro har gauza bera gertatzen zaigu. Diru gutxiago dago, eta horren ondorioz kontzertu gutxiago». Gauza bakarra dago argi, disko berria etor liteke, baina ez litzateke, aurrekoa bezala, hamar hertzekoa izan. «Balardi-Balerdik ere formatu hori erabili zuen, baina, gustatzen bazaigu ere, ez dugu berriro ere erabiliko. Batetik, binloa garestiegi ateratzen da, eta hori gutxi balitz bezala, formatu araro bat erabiltzen baduzu dendariek ez dute horretaz deus jakin nahi. Badirudi hemendik aurrera konpaktoa izan dela nagusi».


Flitter ere Marinoren gustuko taldea da. «Oso talde ona da, baina zorte txarra izan du. Une txarrean irten da, krisian. Horrela gertatu ez izatekotan, dudarik gabe euren salmentak askoz mardulagoak ziratekeen, oso onak baitira. Euren estiloan —gogorra oso— Estatu osoan onenetakoa dira». Haren irudikoz, krisia ez ezik beste arazo latz bat dute, hizkuntza hain zuzen ere. «Euskal merkatuan ez dute arrakasta lortzen gaztelaniar abesten dutelako, eta Estatuan euren mezuak gogorregiak, iraultzailegiak direlako». Beer Mosh taldeak antzeko estiloa jorratzen omen du. «Antzekoak dira, eta gainera, biok gauza asko egiten dituzte. Egun ezin zara etxean kontratazio deien zain geratu, eta hauek ez dira hor gertatzen. Mugitzen dira, eta leku askotan jotzen dute. Gainera ez dute diru asko eskatzen, eta horrek asko laguntzen die». Eta finia, akaboa.



Huajoloteak dira, egun, Gorren altxorrik preziatuena.



XAKEAN



Iruñeko Hiria Torneo Itxiaren 5. ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 31an jokatu.

Jesus de la Villa, 2.440 ELO (Euskal Herria)- Zenon Franco, 2.480 ELO (Paraguay).

1) e4, c5; 2) Zf3, Zc6; 3) Ab5, e6; 4) 0-0, gZ-e7; 5) b3, d6; 6) Ab2, e5. Alfilak diagonal hartu duenez, beltzek bidea moztu diote.

7) Ge1, a6; 8) Af1, g6; 9) c3, Ag7; 10) h3, 0-0; 11) d4.

Ikus koadroa. Beharrezko joko zabaltzea ematen du. Baina ez. Txuriek, jokaldi honekin, partida galtzeko lehen harria jarria dute.

11)..., e-d4; 12) d4, d5. Oso ahul dago 'd4-ko' peoia. Txuriek estu.

13) d5, Zd5; 14) Za3, dZ-b4; 15) Dd2, Zd4. Peoi bat gehiago, beltzek. Abantaila hartu dute.

16) Zd4, Ad4; 17) aG-d1, Ae6; 18) Df4, Zd5 19) Dd2, Ab2; 20) Db2, Df6; 21) Df6, Zf6; 22) Ac4, Ac4; 23) Zc4, b5; 24) Za5, fG-d8; 25) Ef1, aG-c8; 26) a4, a4; 27) a4, Zd5; 28) Gc1, Zb6; 29) Ge4, c4; 30) Zc4, Za4; 31) Ga1, Zc3; 32) Gf4, f5; 33) Ze3. 'Ga6' egin izan balute, 'Gd1' mate.

33)..., Gd2. Beltzek 'Zd5' jokaldia dute. Txuriek ez daukate peoia jaterik.

34) g4, g4; 35) g4, Gc6; 36) Gc1, Gc5; 37) Gb4, Ze4; 38) Gb8 xa, Eg7; 39) Gc5, Zc5; 40) g5, Ze4; 41) Gb7 xa, Ef8; 42) Gh7, Gf2 xa; 43) Ee1, Ga2; 44) Ga7, Zg5; 45) Zd5, Zf3 xa; 46) Ed1, Gd2 xa.

Azkeneko kolpea izan da. Ordurako partida erabakita zegoen.

Mutila eta otsoa

Behin batean mutil bat, galduta, basoan zehar zebilen. Oso lasai zegoen ausarta baitzen eta, galdurik egon arren, ez zitzaion axola. Otso batekin egin zuen topo. otsoak zera galdetu zion:


—Zer egiten duzu hemendik, mutil? Hau ez da zuretzako lekua.

Mutikoak erantzun zion:

—Galdurik nago, otso jauna, eta ez dakit nora joan.

Otsoak berriz:

—Lasai, nik lagunduko zaitut.



Jose txo Urrutia

(LEITZA)

gutxira bere logelan esnatu zen. Dena amets bat izan zen baina otsoaren hortz bat zeukan eskuan. Oso pozik bizi zen.

Baina mutilari egun batean otsoaren hortza galdu zitzaion. Handik aurrera, oso gaizki bizi zen, oso gaixo eta makal. Bere hortza behar zuen.

Egun batean basora joatea erabaki zuen, otsoa aurkitzeko asmoz. Berak uste zuen bezala, han aurkitu zuen.

Zera galdetu zion:

—Otso jauna, oso gaizki nago. Behin elkarrekin izan ginen eta asko pentsatu dut zuregan. Hortz bat utzi zenidan baina



Bidean zihoazela otsoak galdetu zion: —Zuk zer uste duzu, ona ala gaiztoa naizela?

Mutikoak erantzun:

—Itxuraz gaiztoa dirudizu baina bihotzez ona zara. Fidatzen naiz zutaz.

Otsoak esan zion:

—Zu bihotzez ere ona zara. Ni ere

fidatzen naiz zutaz eta sekretu bat esan behar dizut. Ni zeruko aingeru bat naiz eta zuregana bidali naute ausarta eta garbia zaren frogatzeko, zatoz...

Otsoak harkaitz baten gainean zegoen ate bat ireki zuen eta mutila, harrituta, sartu egin zen. Argi handi bat ikusi zuen eta segituan loak hartu zuen. Handik

galdu egin zait.

Orduan otsoak:

—Sentitzen dut baina ezin dut ezer egin.

Berriz ere ate argitsuagatik joan zen. Mutila negarrez gelditu zen eta loak hartu zuen. Esnatu zenean otsoaren kristalezko malkoak zituen eskuan.

Aviranetak faltsifikatutako agiria

«Garai hartan, Aviranetak idazki bat faltsifikatu eta idazki hori euskeratutakoan Probintzietan zabaldu egin zuen. Ez zen gutxira Baskoniako bazter urrutie-nean ere idazki hori ezagutzen ez zuen pertsonarik.

Balitzko gutun bat zen, euskal baserriar batek ojalatero gaztelau bati bidalia. Euskaldun eta gaztelauen arteko ezinikusia sortu nahi zuen Aviranetak.

Gutun horretan guda nola hasi zen kontatzen zen. Guda irabazi ez izanaren errua gaztelaei leporatzen zitzaion, beratzak eta alferak zirelako eta lekoa miserabile bat ibiltzeko ere asto eta man-

doaren beharra bait zuten.

Zenbait zehaztasun emanda-koan, Baskoniako herriko jendearentzat erabat higuigarriak zirenak, euskaldunak pakearen aldekoak zirela esaten zen eta pakea noiz heldu irrikitan zudela. Eta gutuna bertso honekin amaitzen zen:

*Nagia bada astoa
Emaioak astazai eroa,
Edo astoa hila danean
Garagarra buztanean*

Gutun horren kopia aunitz armada karlistarrean zabaldu zen.

Aviraneta bere langileei Hernani eta Andoaingo frentean osatu eta erretegiak ezartzeko agin-

JUANTXO URDIROZ



Ez usteak zure atean joka

Turrutari ematea barka daiteke, lizunkeriatan ibiltzea uler daiteke, baina alferra izateak ez du aitzakirik, antza denez.

dua eman zien, eta armada karlistarrera senargaiak edota senideak ikustera zihoazen neskei pasatzen uzteko.

Aviranetaren ajenteek herri eta gudariagoari jakin arazi zieten pakea lortzeko oztopo nagusia Carlos jauna eta Gaztelako ojalateroak zirela, bata haundinahia izanik eta besteak aberatsak.

Eta aberatsak zirenez gero, gudaren miseria gorria ez zuten ezagutzen, beraien etxealdeko errentak aise kobratzen bait ziztuzten, estranjeriako bankuetan sosak ongi gordeta edukiz». 'Aviraneta o La vida de un conspirador'

Aviraneta jauna liberala da eta karlistarren arteko gorrotoa sortu nahi du. Ez ditu eñlijio, arraza, hizkuntza edo klasé sozial aferak

ibiltzen gorrotoa sortzeko, ohi denez.

Goiko pasadizua aukeratu dut zera ilustratzeko, zein den mundu honetan euskaldun baserriar bat gehien asaldatzen duen gauza. Eta dudarik gabe, goikoari bago-gazkio, esan behar da alferkeria dela. Lopez de Arriortua jaunak arrazoia du.

Ez dakit euskal integrismoan barrenean pasaketan ote nabilen, baina goiko pasadizua segidako ikaskizuna duela uste dut. Turrutari ematea barka daiteke, lizunkeriatan ibiltzea uler daiteke, baina alferra izateak ez du aitzakirik, antza denez.

Bestalde, esan behar da lirerarioko bederen, Aviranetaren egitasmoak asmatu zuela, eta karlistarrak bi azpitaldetan banatu zirela.

A d i o

Ray Lema eta Bulgariako ahotsekin amaituko dira gaur Altsasun aurtengo Nafarroako Jaialdiak, Erriberrik gabeko aurreneko Jaialdiak. Nafarroako Gobernuak deszentralazioa eta eguraldi kaskarra argudiatu zituen 'Erriberriko Jaialdiak' izenez jaio zirenak sorterritik urrutiratu eta Elizondora eramateko. Gobernuaren erabakiak haserre bizia piztu zuen Erriberri eta polemika artean itzali gabe zegoela hasi ziren ikuskizunak uztailearen 25ean.


Hogeita zazpi ikuskizun izan dira osotara, sei ziklotan banatuak. Jai giroan hasi ziren Zangozan, kale antzerkiarekin, eta bigarren astean gaur egun egiten den antzerkiaren erakustoki bihurtu zuten Iruñea. La Fura dels Bausek bi egunez bete zuen Anaitasuna, baina ez zituen MTM azken lana ikustera hurbildu ziren guztiak komentatu, are gutxiago antzerki kritikariak.

Hirugarren astean dantzan jarri zuten Gaiarre antzokia eta hurrengoan kafe-teatroz busti zuten Nafarroako Antzerki Eskola. Johnny Melvillek jendea txunditu zuen, ez hainbeste ziklo honetako beste hiru aktuazioek.

Jaialdien azken txanpan, aste honetan munduko musiken topaleku izan da Altsasu. Toquinho brasildarrak bere egin zituen nafarren bihotzak eta Kanda Bongo Manek Zaireko berotasuna ekarri zuen Sakana aldera.

Aparteko aipamena merezi dute Elizondoko karpako emeraldiek. Mendi aldeak harrera ezin hobea eman die Nafarroako Jaialdiei eta dagoeneko sinadurak biltzen hasiak dira Principe de Viana erakundeari Elizondora hurbildu izana eskertzeko. Bertakoek, luzaroan gogoratuko dute Kiko Venenoren kontzertua, era honetako gutxi izaten baitira Baztan aldean. Els Joglarsen zorrotasuna ere ez dute aise ahaztuko 'El Nacional' ikusteko aukera izan zutenek. San Mixel Garikoitz pastoralak, Jaialdi-tako euskarazko ikuskizun bakarrak, zortzirehun lagun elkartu zituen Elizondoko karpan.

Balantze ofizialaren esperoan, hiru aditu-zaleturen iritziak jaso ditugu orrialde honetan. Adio eta datorren urtera arte.



Kritikaz beteriko satira parregarria aurkeztu zuen La Furak.



Azpiegitura petrala gaindituz, bikain aritu zen Kiko Veneno.

Talde famatuak bi muturretan

FELIPE RIUS



Talde batzuen izen hutsa nahikoa izaten da edozein antzoki betetzeko, eta horrela gertatu da Jaialdien aurtengo edizioan La Fura dels Baus eta Els Joglars-ekin. Oso antzerki desberdina egiten dute biek lehenbiziko proposamen eszenikoari izen hori eman ahal bazaio, baina MTM eta 'El Nacional' lanek izugarriko arrakasta lortu dute Iruñean eta Elizondon, bigarrenak aho batez gainera, ohi denez La Furaren muntaiak aldeko eta kontrako iritziak sortu baitzuten.

Kritikaz beteriko satira parregarri bat aurkeztu zuen joan den asteburuan Boadellaren taldeak Elizondon, eta nik esango nuke aise sar daitekeela La Furaren ikuskizun teknologiko eta subentzionatua egurra jasotzen dutenen koadrilan, kazetari, kritikari, kontseilari, kultur ministro, arduradun eta teatro askorekin batera. Antzerkiaren funtzioak emozioak sortzea, istorioak kontatzea eta ideiak plazaratzea badira, Els Joglarsen antzerki purua eraman zuten Elizondoko karparrak; La Furaren antzezlan multimedialak, berriz, ez zidan gauza handirik transmititu. Askoz planteamendu apalagoa badute ere, Gaiarren ikusi ahal izan ziren ziklo bereko gainerako lanek autentizitate handiagoa zuten, batez ere Atalayaren 'Asi que pasen cinco años' testu lorquianoa. Beharbada jendeak MTM bezalako ikuskizunak nahiago ditu, baina 'El Nacional-ek' jaso dituen erantzun eta kritika onek erakusten dute ona bada betiko antzerkiak etorkizuna duela. Hala bedi.

Kafe-antzerki deskafeinatua

REYES ILINTXETA



Johnny Melvilleren emanaldia aparte utzita kafe-antzerki zikloa deskafeinatu triste batean gelditu zen.

Lehendabiziko egunean El Espejo Negro taldeak eszenatoki gainera ekarri zituen bere panpinak. Esketak izan ziren, bata bestearen jarraian, obra oso bat osatu gabe ordea. Gainera Algeciraskoei ez genien sobera ongi ulertu. Ez zen batere ongi aditzen. Adituta ere ez zuten barregura eragiten eta hortikan ondorio moduan atera zuten adimen motzekoak ginela. Hala pentsatu eta hala esan zuten behin baino gehiagotan panpinen hitzen bidez. Oso detaile itsusia.

Bigarren egunean Teatre de Sac talde kataluniarrak 'Elasticitat' lana eskaini zuen. Hori bat adar jotzea! Ederki aski erakutsi zuten nola bete ordu bat ia-ia deus egin gabe eta, inguru honetan txalo errazekoak bagara ere, txalorik gabe joan ziren Iruñetik.

Azken eguneko ikuskizunak ere ez zuten ikusleengana iristea lortu. El Suecok filosofia gehiegi sartu nahi izan zigun, kafe-antzerkia zer den ahaztuta.

Johnny Melville izan zen publikoa bereganatu zuen bakarra. Lan txukuna, irudimenz betetakoa, teknika onaren erakusgarria eta batez ere gustu eta gogo handiz egindakoa.

Horretarako bai merezi zuela mila pezetako sarrera ordaintzeak eta ez besteetarako! Hau dena ikusita galdera pare bat datorkit burura: nork eta nola aukeratzin dituen taldeak eta bigarrena ez ote dakiten kalitatezko talderik badugula hemen Nafarroatik atera behar izan gabe, Melody Sisters, esate baterako.

Kontzertu konparaezina

JUAN KRUIZ LAKASTA



Badirudi Nafarroako Gobernuaren urtean behin besterik ez dagoela gazteen gorpuntzak astindu ditzakeen kontzertua antolatzeko prest. Iaz bezala, aurten ere Jaialdiak aukeratu ditu horretarako. Iazko abuztuan Rosario, Faraonaren alabarik gazteena ekarri zuen gobernu foralak, eta aurtengoan Kiko Veneno flamenko berriaren erregeari heldu zaio txanda.

Jakina, martxa horretan zaila da antolakuntzan esperientzia mardulegia pilatzea, eta ohiturarik eza hori nabaria izan zen Venenoren emanaldian. Elizondoko plastikozko karpa ez horren erraldoian pilatutako bi mila lagunok infernuko beroa, basamortuko egarria eta Tokioko metroko leku eskasia pairatu behar izan genuen. Eta hala eta guztiz ere, kontent, askok eta askok sarrera eskuratzetik ere ez zuten izan eta.

Nafarroako Gobernuak ez bezala, Kiko Venenok aski ongi daki kontzertu bat zer den, eta azpiegitura petrala gaindituz, sekulako astindua eman zien haren aurrean geundenon gorputzei. Flamenkoa, runba eta flamenkoa, eta popa, rocka eta bluesa, eta Raimundo Amadorren gitarra izugarria, eta auzoko superheroen historiak, delikuentenak, grina zahar eta aukera galduenak, inšomio eta ausentzienak... Itzela ez zela izan esan ahal izateko, zerbaitekin konparatzeko aukera eduki beharko nuke, urtean zehar Iruñean horren pareko dozena bat kontzertu izan beharko liriteke, eta ez direnez, bada, hori, konparaezina, itzela, eta kitto.

